

Zuberoa Garaiko mintzaeraren eredu bat

RUDOLF P. G. DE RIJK *

SARRERA

Gazte-denboran euskaltzale gisa Zuberoan gaindi nenburgela, Madalena de Jauregiberri anderea ezagutzeko zoriona gertatu zitzaidan. Andere bikain honen berri ez dakien irakurle batek bere hutsunea bete nahi badu, jo daiteke Euskaltzaindiko *Euskera* aldizkarira (XXIII, 1978 -1, 387 -388. or.), ez baitauka Jean-Louis Davant euskaltzainak egindako hilberria baino irakurgai egokiagorik.

Hilberri labur bezain mamitsu honetan bi gauza nabarmentzen dira partikularzki Jauregiberri anderearen izaera eta bizitza direla eta: Bata, Espainiako gerla garaian hego-euskaldunen aldezkari gartsua izan zela, noiznahi eta nonahi horien alde mintzatuz eta idatziz. Bigarrena, urte luzeetan zehar euskara iparraldeko irakaskintzan sarrarazteko hamaika ahalegin eginik zituela errientsa izandako andere hark.

Zuberotar honen merezimendu ugariak Euskaltzaindiak ere erazagutu zituen –beranxko bazen ere– 1975. urtean ohorezko euskaltzain izendatuz.

Nahiz eta Jauregiberri andereak mundu hau utzi eta jadanik hogeita bi urte igaro diren, bera ezagutu dugunoi erabat ahaztezin zaigula aitortu behar, eta jakin ere badakit ez naizela neure kabuz bakarrik mintzo. Haren oroigarritzat, bada, bai eta *Fontes* -en irakurlegoari jakingarri izanen zaiolakoan ere, aspaldi-aspaldi zuberotar euskaltzale handi hari egindako grabaketa bat hona aldatzea erabaki dut. Grabaketa honen nondik norakoa hitz bitan azaltzera noa. Jauregiberri anderearekin, oker ez banago, 1961. urteko udan lehendabizikoz elestatu nintzen, eta handik bi urtetara berriro harenganatzean, Zuberoa Garaiko mintzaeraren erakuskari balios bat eskura

* Leiden-eko unibertsitatea, Holandan.

nahian, ausarkeria galantaz magnetofono bat ipini nion aurrean eta kontakontari has zekidala eskatu. Bai eta bihotz oneko andere honek, beti bezala atsegin emateko prest, galanki hitz egin ere, honetaz eta hartaz, bere gisako euskaraz. Solas hartan neronek hartzen nuen partea oso urria izan zen. Bai, ontsa ulertzen nuela, eta, otoi, jarrai zezala, eta antzeko esaldi batzu. Ez deritzat esalditxo horiek hona aldatzea merezi dutenik, eta soil-soilik Jauregiberri anderearen eleak papereratuko ditut.

Andereari hitza utzi aitzin, erabili dudan idazkeraz zenbait azalpen eman beharrean nago. Izan ere, Euskaltzaindiak emandako idaztarauak, euskara baturako zinez egokiak badira ere, ez ziren zuberorako asmatuak, eta ez dute, ene ustez, inola ere euskalki hau idazteko balio. Puntu batean, ordea, men egingo diet: *np* eta *nb* idatziko dut *mp* eta *mb* ahoskatzen dena. Zertzelada gehienetan, alabaina, oguzkeratik ahalik hurbilen gelditzeari iritzi dit. Esaterako, hiltunak “ezta” dioenean, halaxe uzten dut, “ez da” -ra aldatu gabe. Gainera, Zuberoako literatur tradizioari jarraikiko diot “lekhian” eta abar idatziz, eta ez “leküan”, oraingo zenbait idazle, Peillen euskaltzainaren eraginez edo, egiten hasi diren legez.

Zuberoako mintzaeran hain nabari den indar-azentua markatzen saiatu naiz. Baina, oro har eta salbuespenak salbuespen, ez dut markatu, ohi bezala azkenurreneko silaban dagoenean.

Zuberoako mintzaerak badu beste berezitasun bat: txistukari ahostunak edukitzea, batez ere onomatopei eta maileguetan. Nire idazkeran ahostun txistukari hauek puntutxo bat daramate azpian, hala nola: *zapart*, *plazer*, *gişa*.

Anderearen solasaren textua ulerterrazago gerta dadin, eztabaidagarri etsi daitekeen erabaki bat hartu dut. Bada, Zuberoa Garaiko mintzatzaile gehienentzako, gure hiltunak ere bokale arteko *r* argala jan egiten du, ez du ahoskatzen. Erraz zurrean, irakurlearen faboretan, oguzkeran eskuarki ageri ez diren *r* horiek, baliraute bezala idaztea erabaki dut. Esate baterako, textuak “oro erabiltera” dioenean, “óo eabiltéa” ahoskatzen du Jauregiberri andereak.

Noizean behin, ordea, gutxi-gutxitan bada ere, ahoskatu egiten du bokale arteko *r* argal hau. Honelako *r* argal ahoskatua, bokale artean aurkitzen dena, *ř* azentudunaren bidez irudikatzen dut.

Beraz, *rr* eta *ř* bi gauza ezberdin dira: bata *rr* sendoa, bestea *r* argala, bokale artean idoro arren, jan gabe utzia.

Ondorioz, honetaz kontura bedi irakurlea: ez direla bi hitz desberdin *oro* eta *óro*, hitz berbera bi modutara ebakita baizik.

Frantses esaldi edo hitz batzu ere badira textuan. Horiek frantseseko ohizko idazkeran ematen dira, letra etzanez markaturik: *bon*, *surtout* eta abar.

Azalpen guzti hauek gogoan hartuta, prestik gaude finalean Jauregiberri anderearen solasa zaporatzeko.

Hona hemen hark esana:

TEXTUA

Zer nahi düzü, igela?

– Igelak nahi idia bardint:

Agorrilako ülhüntze bero batez,

Musde Igel, bethi elger,

ari zen hürün entzünazi beharrez
 bere kharraka ehelegagarria,
 iratzarraztez jaurregiko¹ lozalia.
 Edatera zen hüllantü idia.
 Igelltto, bekhaxtto, zertako zen bera hañ ttipia.
 Handitzen da; diolarik ahizpari²:
 “Hori bezainbeste nüken sarri!”
 Jarri zen llodi, biribil, zoño-moño,
 bai, zapárt egin eta hil.
 Apollot horrek bezala,
 egile bada gişala”³

Nahi düzü istória bat. Larrañen igán den istória bat:

Bada Larrañe alde gaiñian San Juşefen ermitá. Entzün düzü khantatzen: “San Josefen ermitá deşertian gora da. Españálat juaitian han düť ene phausada”.

Ordian, Larrañe alde gaiñian bada San Juşefen ermitá bat.

Da zinez gora, eta Españáko bidian da. Eta ermita harek badü txapela txipí bat. Eta gero, txapelaren aitzinian badü, hola atherbü txipí bat. Badakizü, Españatik jiten den jente edo artzaiñ edo zonbaiten, atherbü bat. Atherbia, badakizü zer den: *l’abri. Bon.* Eta gai batez juna zen Españárik emazté bat, fruntera iganik. Maulen zian familiá, espartiñaren lanian ari. Eta beraxko heltü zen, beraxko, ülhüna khantian, eta igán zian etzila Larrañera heltzeko denborarik. Eta ordian, zer egiten dü? San Juşefen ermitá han beitzen, han jarri zen atherbian, eta han, bere gişa, gaiaren igaitera. Sartzian egiten dü: “Ha, San Juşef, San Juşef, zuri hértsatzen nitzaitzü, heben zure protekzionaren pian gaur gaiaren igaiteko”.

Eta, entzüten dü boz bat: “Bai, bai, emaztia, sar zite!”

Harritü zen emaztia, lasterka eskapü, lasterka eskapü, Larrañera jin, eta kasi ingoaxatürrik edo, Larrañeko lehen ostatian.

– “Beno emaztia, zer düzü?” – “Zer düdan, zer düdan! Haur düzü agitü zaitan gaiza!” – “Da zer?” – “So izü, berantü zitazün bidian eta lotsa nündüzün enintzala Larrañera heltüko ülhüna gabe. Sarthü nüzü San Juşefen ermitán, eta han sartzian erran diot: “San Juşefe, othoi, gaurko alojia galthatzen deitzüt”. – “Eta gero?” – “San Juşefek ez deit arrapostü eman: jiten ahal nintzala eta trankil egoiten”. – “Beno, errazü, emaztia, akontrari, behar zünükien jin kontent, San Juşef zuri mintza ledin”. – “Beno, ez nizün

¹ Hemen *jaurregi* jarri dut *rr* sendoarekin, halaxe aurkitzen delako Etxehun-Iruri khantan deritzan liburuan: “Ene jaurregi pare gabekua” (39. or.). Gainontzeko euskalkietan, jakina, *r* argalarekiko forma erabiltzen da, argi baitago hitz hau *jaun* hitzaren elkarketazko forma jatorraz osatua dela.

² Hona hemen Musde Igel ustekabeen emakume bilakaturik. Sexu aldaketa hau frantses ereduari igela “la grenouille” delakoz gertatu bide da.

³ Jauregiberri errientsa ohiak hain ederki buruz esaten zekien testu hau La Fontainen alegietako baten antolaketa dugu (Fables, I. lib., III). Hau berau, berriz, Fedro-ren alegia baten antolapentzar jo izan da (Fedro, Fabulae, I, 24). Euskal bertsook Fabien Hastoy jaunari zor dizkiogu, hark eman baitzituen argitara 1936. urteko Gure Herria aldizkarian, 395. orrialdean. Ikus DRA, 1258. or.

nahi mintza ledin!” Afín, igán zien emaztia amiñi bat ertxoska zela, eta, *bon*, han gai-alojia egitéko. Maulera jun zen.

Biharamenian, biharamen goizan, eraisten da artzáin bat. Eta artzáin baretzek erraiten deio ostariari: “Errazie, ikhusi düzie barda emazte bat huna jiten?” – “Hi hiz aments, hik düka hola lotsazi?”.

– “Nula ni?” – “Bai, hi mintzatü hitzaio San Juşef bahintz bezala!” – “Ez, sarthü dük han, eta ni ülhünpián beinintzan, lotsa nintzan; lotsatü nük ia emaztia lotsatüko zela. Eta ordian, erran dioiat, erran dioiat, emaztia etzitila lotsa. Bai eta enian kunprenitzen nik zertako hala lasterka eskapü zen. Jun nük borthala, eta oihüaz hasi, eta emaztia, nik oihüago eta hura lasterrago eskapatzen. A, segür nük uste beitzian San Juşef nintzala”.

Hori oihüz ari gibeletik!

Holaxe, entzün düzü ixtória, bai?...

Nahi zünin beste bat? *Bon*, pausa..., txerkha dezadan. *Ecouste*: Jundane Petí egünian, Jundane Petí egünian, bada mezá bat heben Zünharrin, hebetxen khantian; Jundane Petí beita patrua, ordian Jundane Petiriz bada mezá bat hor. Eta astegünez agitzen delarik, badua jente, bena ez hanitz. Bena igantia delarik, ordian, igantian heben jente haboro mezara ebiltan beitzia, Lexantzüko, Etxebarreko eta Zibozerik ere; jente hanitz badua meza hartara. Eta urthe hartan, Jondone Petí egüna iganté bat zen. Jente hanitz bazen. Gaiñeko... badakizü, zera, gizunen zera, oro jentez bethe-bethia zen. Eta ordüko Lexantzüko apheza deitzen zen *l'abbé* Garicoitz, ziberotar püfa. Egin zeikün phedikü bat! Ez deizüt erraiten ahal zer phedikü eder! Imájeri bat bezala erabili güntian, ba’kizü, Jeşusen ondotik, Galiléako eta hurbazter hura khantin eta, Jundane Petí arrantzün eta... Jundane Petíren bizia oó kontatü, Pilatüsen aitzinila jin artino.

Oro kontatü, istória oó.

Eta ikhusten nütian, ez ikhusten, haurrak oro holaxe behá, behá, istória eder bat bazen bezala. Emaztiak ere, hitz bat galdü gabe. Eta segür nüzü gizunak ere gaiñ hartan bethi plazéreki entzüten ziela, badakizü, bethi bezala, ebanjeliua, Jundane Petíren ebanjeliu hori kontatzen, ziberotar püfian, ziberotar eder batetan.

Ene beithan ari nintzan – ‘ene beithan’ ba’kizü zer erran nahi dian – ene beithan ari nintzan, hari behá nintzala, phedikü hori frantseserat ützülirik – beno zer izkibaño behar lizate, horren behar bezala ezarteko frantses – phedikañi handi batek katedrala batetan ere emaitan ahal zükian. Bena, diferéntzia huneki, Zünharreko eliza ttipiko jentek oroek, haurrek, emazté eta gizunek, orai kunprenitü zütiela hitzak oó. Eta sékulan – ezpeita süposatzen ahal – falta bat bera egin bazian, oroek usi senditüko beitzien. Aldiz, ber phedikia katedrala batetan, zonbateg kunprenitüko zien? Zonbateg?

Ordian, bazen, bada herri hartan, Zibozerik, hebentik, ezkuntürik emazté bat han. Eta adiskidiak, urthe oroz, khümitüz etxe hartara, askaritara, komünione dela eta, askaritara. Bada, hori, bethi nintzan, askaritara juten nintzen eta. Baziren hamar bat emazte, etxe barnen, hamar bat emazte. Erraiten det: “Zer phedikü eder entzün dügü!”. Emazte batek erraiten deit: “Bai, zer nahi düzü? Gure apheza mintzo düzü ximpleki, gük kunpreni gişa”.

Enon deüs ere arrapostürik egin ahal izan. Nula nik emazte hari kunpreniazten ahal non, beharbada entzün nian phedikürik ederrena entzün

nila. Eta entzün dü't phedikatzen Parísen, eta ene gísa, radioian eta, hanitz phedikü. Séküla ezpeinian entzün halako phedikü, imajez eta oro. Eta gero, etsenpliak eta letzioniak phediküti landa, hain ejerki, letzioniak... Nula erraiten ahal non, hez kunpreniazten?

Hala mintzo dira gure kartieleko emaztiak. Eman nahi deitzut etsenplü bat bera: Emazté bat hortxe bazuzün eta ikhusten dü adiskidé bat. Adiskidík erraiten deio: "Errazü, zertako ez zira jin elizabestáliát, besta hartan, zertako ez zira jin?" – "A, nahi banündüzien jin nendin, behar nündükezien denboratükan khümitatü". *"Si vous eussiez voulu que je vinsse, il aurait fallu que vous m'invitassiez à temps"*.

Ez dira gure kartielian ez profesür sabantak hala mintzo: *"Si vous eussiez voulu que je vinsse à la fête locale, il aurait fallu que vous m'invitassiez en avance"*. Nahi izan bazünien jin nendin, behar nündükezien denboratan khümitatü".

Hortxe badügü, etxe batetan, sinple bat, gizun bat sinple deitzen düzüna, badakizü, holaxe, ez ertzo, bena sinpleska, badakizü, holaxe, sinpleska. Eta igán egünian, etxekandériak igorri zizün, etxekandere gaztiak, aza eli baten lanthatzéra. Eta ülhüntzian jun züzün lanaren ikhustéra. Eta erraiten deio: "Bena, nun, nula horiek hola lanthatü tützü, nun ezarri tützü? – "Eta nun nahi zünükian lantha nitzan?". *"Où eussiez-vous voulu que je les plantasse?"*.

Hola mintzo, hola, gure herriko sinpliak. Gaiza hori beita, heben jente sinpliak mintzo dira sabantenak bezain untsa. Badakizia zertako? Beharriak beitie, izigarriko memoria, eta entzütez ordian mintzo dira, beharbada hurak ez hobekienik, bena, sinple direlako, hortik sarthiak oño begiratzen tie memorian behar bezain ongi. *"Où eussiez-vous voulu que je les plantasse?"*. Hola mintzo dira Xiberoko jentia.

Eta orai ari dira sanjüz arruntz, frantses arrunt batetara igaiten. Azkenik erran deit – untsa entzüten düzü hori? – azkenik erran deit, hortxe Arhaintxe mendiko, afin, heben herri-aizu batetako gizun batek, hebentxe, hori, hortxe berian... Erasan deiat: "Gük, üskara begiratzen dügünok, errespetia ekharriaziko dizügü, errespetia; eta gaiza errespetagarriak errespetiazi. Zer nahi düzü hortxe Atharratzen mintzo den lenguaje arrunt hortan: *As-tu fini le boulot? Ah, ben, j'en ai marre. Ah ben, zut alors!* Hola mintzo dira, haurrak. Ez da estunatzeko, etxeuak hala mintzo beitira, ezpeitie besterik entzüten. Deüs ere errespetürük ez da ekharriazten ahal halako lenguaje arruntan.

Orano ere diferént düzü, beno behar ere, gure familietan. Aitetama batek, jakiten badie, bere seme handiak edo alhabák egin dila behar ez den zerbait, behar ez den zerbait, ülhüntzian, familia oño kozinan delarik, han, sü-tonduan, botza zinez altxatü gabe erraiten badü semiari: "Errak, to, hori entzün diat, ehiz ahalke?".

Bi hitz horiek, *et surtout* "ahalke", haiñ dira, haiñ dira, haiñ dü berak errespetia ekharriazten, nun memento batez emaztiak ezpeitira haizetüko zinez mintzatzerá, ahapeti mintzatüko beitira. Eta ebiliko zango püntetan, ez ere hotsik egitéko, haiñ; beitie hitz heik, eta "ahalkia" *surtout* aidia oño bethe".

Eta erran non gero: "Eta errazü, eta semiak arrapostü eman lezan aitari?" – "Ez. Ez dit sinhesten ahal aita üskaldun bati semiak arrapostürük erraiten ahal dila, erran bado "Ehiz ahalke?".

Edo, arrapostü emaiten bado, eskian dianareki, ez dükezü bere mobimentian nausi, eskian dianareki emanen diozü bürian. Hain beütü hitz horrek errespetü sartzeko, “ahalkia”.

Horien oro galtzen?

Ordian, ez da phena solamente mintzairiaren galtzia – balio dü ere mündüko mintzaire zaharrenaren begiratzia, bena hori gaiza eder bat bezala – ezpaledi phentsamentia gal; bena ber denborán phentsamentia oro galtzen.

Eta, ezagützen tüt aitañi eli bat, aitañi eli bat, arrahaurrak, ezpeitie algarreki mintzatzéko – eta aitañia mintzo holax, eta ene aitañia ni beno hani-tzez hobeki orano – ezpeitie alkharreki elhestáko beharbada hogeita hamar hitz beno haboro. Aitañiak ez daki frantzesa, arrahaurrak ez daki üskara. Eta eztie artian mintzatzéko holako linguaje bat, ezpeitü frantses izena baizik, práubenetarik. Eta ordian, aitañien jakitatie ofo jeneratione batetan galtzen.

Hori untsa kunprenitzen düzü?

Zerak – nula deitzen da? – *suédois* zer hura – erran düzü izena⁴ – haek ordian jüntatü dira Suedan – igorri deikü ere (ezagütü düit heben, *suédois* hori ikhusi düit nik heben eskualdun zer batetan) – eta ordian izkibatü die à *l’Unesco*, behar zirela atsolutoki linguaje zahar hek oro begiratü; orok merezi beitie begiratzia. Bena, bi lanjer handietan zirenak: Eüskara eta Ainua.

Eta nik, badakizia zer? Ene anaiari⁵ holaxek entzün dot erraiten, hola. Horrek isi-isi estudiatü dü, badakizü, jakin mekanismo hori hatzaman eta oro, eta ez dü erraiten ahal nula pentsamentükatü den.

Erraiten dü orai artino nahi zienek ikhusi zer askazgua zien edo zer algarüdüri zien linguajek, hitzer so egiten ziela. Eztela behar hitzer so egin –*les mots d’usage*–, hoek nulanahi eta nuiznahi sartzen ahal dira. Behar direla phentsamentiaren erabilteko zerak. Eta Ainua hori, badakizia, nik hori ikhusi düdalarik zer orhitü zeitan. Ainua da Japoneko linguajerik zaharrena. Eta, o, ene anaiak erraiten zeitan, *bon*, badila imajinazione bat, badakizü, fantasia, han, *bon*. Erraiten die Asiarik horra dela lehen jentiak; Asia dela jenten khüñá. Ustekeria, ustekeria, ihurk ez daki, bena, *bon*, *enfin*, ustekeria, ajian, agian. Eta ordian, üskaldünak ere Asiarik horra dira. Nuiz jin dira? Ordian Asiarik jinik ere Japoneko zer hurak. Eta hurak ere, beharbada isla batetan, han eta sepa-fatürik lüzaz izanik eta, begiratü... Balio lüke, zu gazte zira. Untsa kunprenitzen düzü?

Maintenant je vais vous raconter...

Harritxabalet zen Santa Garaziko aphez bat eta ehün kiloz gora, goitik pezü ziena. Eta egün batez, egün batez, *Soule*-reneko, Atharratzen, *Soule*-reneko aitzinian zen, merkategün batez. Eta bazien fama izigarriko indarra baziela, indarra. Eta, erraiten zien, ferretá – badakizü zer den ferretá? Ez?

⁴ Delako izen hori Pierre Naert-ena zen, Suediako Lund hiriko ikastetxe nagusian irakasle izan zenarena. Belgia hizkuntzalari honek bere bizitza labur samarrean – 1916-an jaioa baitzen eta 1964-an zendua – anitz hizkuntza aztertu zituen, berariaz Japoneko Ainua. Euskarari buruz ere baditu hiru lan: “Le verbe basque est-il passif?”, *Studia Linguistica* X (1956), 45-50; “Pourquoi le basque doit-il survivre?”, *Gure Herria* xxx-3 (1958), 129-134; “A propos des emprunts germaniques en basque”, *Orbis* xii (1963), 198-205.

⁵ Anaia honen izena Clément de Jauregiberri da, eta geroxeago aipatzen den bere ikerlanak “Etude synthétique du verbe souletin” dakar izenburuztat. Dakidanez, oraindaino argitara gabe dirau.

Holako zer bat, holaxe, kobraz eta zertürrik, nun hura lehen ekhartzen beitzien бүрүгайнен emazték: ferretá –. Harritxabaleték hain ziela eskü azkarra, ferreta holaxe eskü bateki zertzen ziela eta ardúz betherik eta üngürrian jenter emaiten edaten. Han ziren so. Erraiten dü, hola jokükan – ordian izigarri lakhet zien jentiak jokükan – jokükan eta, batek erraiten dü: “Zü haiñ azkar zirenaz gaiñen – Santa Garaztar bat zen edo Larraintar bat, ez dakit – zü haiñ azkar zirenaz gaiñen, nahi ‘zia joka zuiñek mando hortan karga ehün kilo, zoiñek zalheago. *Bon*, ekhartzen tie laur zakü, laur hogeita bost kiloko zakü, laur hogeita bosna edo berrogeita hamarnako kiloko bi zakü. *Bon*, jokia, bai. Ferreta bat ardú. Ferreta bat ardú. Han ziren oño so. Larraintarrak kargatzen dü lehen zakia, berrogeita hamar kilo. Eta bestiak han ziren: bena, zü, ütaz, ütaz... Beste berrogeita hamar kilo, ez zian orano untsa phausathürrik, plau! Jauzi bateki mandoren gaiñian igán zen eta erran: horra ehün kiluak!

E, hori bai, hori kuntatzen zien. Aita Harritxabalet zenaren istória. Izigarri azkar zen, izigarriko gizon azkarra zen, bai.

Bazen bai, o hanitz istória hor, bena, ez nüzü orai untsa orhit, badakizü; bat hori orhitü zitazü, bat.

Orai nahi deitzüt kontatü nula... Ziberua ikhusten düzü, khantian dü *Basse Navarre, Labourd, Biscaye* eta oro. Alkharren kasi kuntre dira, eta khantian, kuntre dira. Zer gişa diférent mintzo dira? Zertako? Hori ere gaiza drolia düzü. Bethídanik hor khantin, zer gişa; eta badakizia, horien *hypothèse*: zeren sarthü diren.

Hor, egon zirelarik berak, *les Ibères*, berak, eta *période glaciaire* haek sarthürrik, berak, bortxaz ere, denbora lüze hartan, famili eli bat, holaxe, sarthü zirela. Ordian, famili eli bat han egon zirela alkharren khantüxkan, bena, badakizü, popülkatü eta handitü eta ordian hurak ere han erdi berhéx, eta egon zirela beharbada mil eta mil urthian. Han, holaxe, hantxe, hortxe, hortxe, hortxe, European, *les Ibères*, badakizü, Italian eta hortan orotan, nunbait, hor, holaxetorik: berhéx. Eta jin zirelarik gero Asiatik edo, berriz *l'époque, la période tempérée* jin zelarik, hasi ziren berriz jentiak jiten. Eta jente jiten ziren hurak diférentzia zunbait ere zütien, esklabo eta gerlegile eta zer eta.

Üskaldünek etzakien gerlegiten, etzien sékülan gerlarik egin ihuri ere. Eta ikhusi zütielarik hurak jiten, familiak, famili eli bat edo hola, jin ziren, jin ziren, eskapü eta jin eta jun eta hebetxen mendietan eta horien artian eta hor egon. Eta ordian, zer eli bat, probintzia diférent eli bat bezalako jentiak jin ziren, eta hor holaxetorik, lehen bezala berhéx, bena alkhartara jüntatü.

Eta horrek dü esplikatzen zer gişa... Heben düzü Xibero eta hortxe Manexak hartzen deio, hortxe do Laburdik hartzen...

Jin ziren ordian eta horrek esplikatzen dü zertako mintzaire diférent, zazpi mintzaire diférent, jin baziren zazpi probintziatako jentiak bezala. Jin zirelarik, ez beitzakien gerla egiten, ez zizin ordian armarik, afin, armarik edo zer, eta jin, holaxe emeki-emeki, gibeltzez, gibeltzez, gibeltzez, eta hortxek gero azken zera hatzaman onduan, hor.

Eta ordian, hor, zazpi ehün urthez, jin tützü *les Musulmans*, horrat artino, zazpi ehün urthez. Berriz hortik, *les Romains*, Vizigotiko; hori ordian defendatü eta hor begiratü.

Horiek oño, gero, ipotesi eli bat dira, badakizü, finalian üskaldünek ez die behin deüs izkibatü denbora orotan. Izkibidia atzo düzü üskaldünen.

Orai dira bost mila urthe, hamar mila urthe. Nurk... Ez zizün ihurk ere izkibatzen. Ihurk ere. Eta üskaldün hek üskaraz mintzo ziren. Eta üskaldün hek hitz horiek oño bazütien, bere phentsamentiarren *verbe* hori bazen. Zeren eta, *verbe hori*, ene anaiak, ez dakit erran deitzüdanetz, lana presentatü zilarik *l'abbé* Lafitte-ri, hori egin dialarik, ezpeita orano inprimatürik izanik; eginen dügü eta igorriren deitzüt lehenetarik bat. Erran zon: “Bai, hori blok batetan ezarri tützü, blok batetan ezarri tützü horiek oño, bere ikhian eta bere kortxeletan”. Eta erran zon, laur pajetan esplikatzen beütü denbora, hurak *remarquables* zirela, zeren eta, orai artino sabantek eta oroek, zerak, azkenik Gavel, – eta Gavel-ek erraiten zin bazela ehün *temps* beno haboro, hala txerkhatzez, badakizü, *combinaisons* eta ororeki, ehün *temps* beno haboro. Ordian erran do: Horiek *remarquables* ziren, zeren eta presentatzen beitzien denbora, bethi gramefientako oño izan beítira phenatürik, ezin horren zertzez, presentatzen ziala hain xinpleki, *d'une façon inédite*, *remarquable* zela.

Anaiak gero, lana finitzen zialarik, ezarten zian besterik zerbait. Erraiten zian *verbe* haur orai den bezala zen *chanoine* Intxauspe-k⁶ izkibatzen zian denborán. Ez düzü khanbiatzen. Ez da khanbiatü; orai dela mila urthe, bi mila urthe, ez düzü khanbiatzen ahal. Hitz bat bera, hortxik *t* bat bera elkhiten badüzü, edo *i* bat, edo *n* bat, arrunt khanbiatürik düzü. Ber aparenztzia holako... *des fils*, zer bat, *un tissu*, izigarriko den zer bat eta, bada, phüntü bat bera, *une maille* bera, zertzen bada, emeki-emeki zertzen da oño. Hori frantsesez erranen deitzüt: *Pas une seule maille n'a cédé dans le tissu du verbe basque. Pas une seule maille.*

Bon, ordian erraiten die mündüko lenguajerik zaharrena. *Bon*, ahalaz zaharren. Gizuner phentsamentia eman donaz gaiñen gure Jinko Jaunak, eman do elhestatzeko zera, bortxaz ere, phentsamentia eta elhesta ber denborán eman deitzo, alkharreki beítira. Elhia gabe ez da phentsamentürik, phentsamentürik gabe ez da ezer. Ordian ber denborán hok eman tü. Bena, gramefa hori, mintzo baziren language hortan kabernetan bizi ziren gizunak, zer, xinpleki beno xinpleago mintzo izan düzü.

Ordian, denbora hetan, orai gramefientek hatzemaiten die destordena-riko zer sabanta dela, – eta gramefientak berak kapable lizatekia holako gramera baten phentsatzeko, Esperanto egin dien hain her...⁷.

LABURPENA

Artikulu honek egileak 1963. urtean Madalena de Jauregiberri (1885-1977) andereari egindako zinta baten textua eskaintzen dio irakurleari.

Textu honen garrantzia bikoitza da: alde batetik, Ziberoa Garaiko mintzaeraren erakuskari jakingarri bat delako, eta bestetik, hain luzaz bere sorterrian kulturgile handi izan den Madalena de Jauregiberri anderearen izaera eta kezak islatzen dituelako.

⁶ 1815-ean jaio eta 1902-an hil zen Manuel Intxauspe kalonjearen *Le Verbe basque* izeneko liburu sonatua 1858. urtean argitaratu zen.

⁷ Zorigaitzez, Jauregiberri anderearen solas hau bukatu gabe utzirik, zintaren segida oharkabez ezabatu egin zait.

RESUMEN

Este artículo presenta la transcripción de una entrevista del autor con la señora Madalena de Jauregiberri (1885-1977), que tuvo lugar en el año 1963. El texto tiene cierto interés por dos motivos: tanto por ser una muestra bastante extensa del fascinante subdialecto que llamamos el alto suletino, como por ser reflejo de la personalidad de la señora Madalena de Jauregiberri, que fue una muy distinguida figura de la sociedad suletina cuya influencia se extendía a todo el País Vasco.

RÉSUMÉ

Cet article comporte la transcription d'un enregistrement au magnétophone datant de 1963, la locutrice étant Mlle. Madeleine de Jauregiberri (1885-1977). Ce texte présente un double intérêt: d'une part comme échantillon du haut souletin, sous-dialecte quelque peu négligé parmi les bascologues, et d'autre part comme fournissant un remarquable reflet de la personnalité de Mlle. de Jauregiberri, qui fut un personnage très influent dans la vie culturelle de la Soule au milieu du vingtième siècle.

ABSTRACT

This article contains the transcription of a tape recorded by the author in 1963; the speaker is Madeleine de Jauregiberri (1885-1977). The text is interesting for two reasons: as a specimen of the high-Souletin subdialect of the Basque language, and as a reflection of the concerns and personality of Madeleine de Jauregiberri, a major mid-twentieth century cultural figure in the Basque province of Soule.

